MUNGIA
UDALA

MOZIOA: ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINTZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN

Denbora asko daramagu entzuten garai berriak bizitzen ari garela, baina, hala ere, zoritxarrez, oraindik ohikoak dira, eta azken boladan are gehiago, Herri honetan iraganean bizi izan genituen garai-ilunak gogorarazten dizkiguten jarrerak eta keinuak. Horren adierazgarri da, besteak beste, azkenaldian ertzainei, udaltzainei eta lanpostu hauetarako oposaketak prestatzen ari diren gazteei zuzendutako hainbat eraso, mehatxu, seinalatze eta irain larri bizi izan ditugula zenbait kolektibo edota pertsonaren eskutik.

Gernikako ertzain-etxearen lurralde-eremua ere ez da jarrera horietatik libratu, eta uztaileko egun hauetan hainbat ertzain mehatxatu eta iraindu dituzte. Oraingoan, gainera, haien familia-etxebizitzak erabili dira mehatxu horiek egiteko.

Herritarren bizikidetza eta segurtasuna gizarte demokratiko baten funtsezko zutabeak dira, eta Ertzaintza zein udaltzaingoak funtsezko elementuak dira gure segurtasuna bermatzeko. Hilabete hauetan bizitako gertakariak eta gure lurralde-eremuan bizi diren agenteei iragan egunotan egindako erasoak, giza-eskubideen urraketa larria suposatzen duten jazarpen-indarkeria legez kalifika daitezke, eta jarrera guztiz antidemokratikoak dira. Horregaitik ezinbestekoa da erakunde guztiek eta hauetako arduradun publikoek gertatutakoa irmoki salatzea eta gaitzestea halakorik berriro gerta ez dadin.

Ildo horretan, PSE-EEk eta EAJ-PNVk mozio hau proposatzen die Udal honetako Osoko Bilkurari.

• Mungiako udalbatzako ordezkariek Ertzaintzako agenteek jasan dituzten mehatxuak eta irainak irmoki salatu eta gaitzetsezten dituzte.

• Mungiako Udalak euskal herritarren eskubide eta askatasunak errespetatzean eta bultzatzean eta horrek dakartzan betebeharrak betetzean oinarritutako bizikidetza-eredua babesten du, betiere indarrean dagoen lege-esparrua errespetatuz. Hori guztia bermatuta eta eutsita dago Euskal Poliziaren (Ertzaintza eta Udaltzaingoak) lan profesionalari esker

MUNGIA
UDALA

MOCIÓN: EN FAVOR DE LA CONVIVENCIA Y EN DEFENSA DE LA ERTZAINTZA Y LAS POLICÍAS MUNICIPALES

Hace tiempo que llevamos escuchando que los tiempos han cambiado, pero pese a ello, todavía son frecuentes, y últimamente más, actitudes y guiños que nos recuerdan a épocas pasadas; épocas oscuras que por desgracia nos tocó vivir en este País. Ya son varios los episodios de graves ataques, amenazas, señalamientos e insultos a ertzainas, policías municipales e incluso a jóvenes que están opositando para estos puestos, que hemos vivido durante estos últimos meses por parte de algunos colectivos y/o personas.

La demarcación territorial de la ertzain-etxea de Gernika tampoco se libra de estas actitudes, y durante estos días de julio, varios ertzainas han sido amenazados e insultados. En esta ocasión, se han utilizado, además, sus viviendas familiares para realizar estas amenazas.

La convivencia y la seguridad de la ciudadanía son pilares fundamentales de una sociedad democrática y tanto la Ertzaintza como las policías locales, son un elemento central para garantizar la seguridad. Los episodios vividos estos meses y lo sucedido estos pasados días a agentes de nuestra demarcación, son actitudes antidemocráticas que se pueden calificar como violencia de persecución, lo cual supone una grave violación de los derechos humanos. Es por ello que requieren que el conjunto de las instituciones y los responsables públicos denuncien y condenen de forma contundente para que no se repitan.

En ese sentido, desde PSE-EE y EAJ-PNV planteamos la siguiente moción al Pleno de este Ayuntamiento.

- Los representantes de la corporación municipal de Mungia denuncian y condenan las amenazas e insultos que han sufrido los agentes de la Ertzaintza.
- El ayuntamiento de Mungia apoya un modelo de convivencia basado en el respeto e impulso a los derechos y libertades de la ciudadanía vasca y el deber con el cumplimiento de las obligaciones. Todo ello garantizado y sostenido gracias a la labor profesional de la Euskal Polizia, la Ertzaintza y las Policías Locales.